




FEDMEko LEHIAKETETAN BERDINTASUNA LORTZEKO JARDUNBIDE EGOKIEN GIDA

Egileak:

Reyes de Miguel Renedo – Berdintasunerako presidenteordea

Araceli Bejarano Calvente eta Alma de las Heras Carbajo
Mujer y Montaña batzordeko kideak

Azaleko irudia: Chantal Vizcaino

Aurkibidea

I. ZATIA

1. Sarrera
 2. Helburu nagusiak
 3. Gida, ekintza positibo eta lanerako tresna gisa
 4. Kirol espezializatuak
 5. Genero-ikuspegia
 6. Nori zuzendua?
 7. Helburu espezifikoak
-

II. ZATIA: KIROL-LEHIAKETETAN BERDINTASUNA LORTZEKO JARDUNBIDE EGOKIEN GIDA.

1. Genero aldetik inklusiboa eta ez-sexista den hizkuntza erabiltzea.
2. Irudiak eta ikus-entzunezkoak
3. Hedabideak
4. Emaizak eta sailkapenak
5. Ratioak
6. Kirol-materiala
7. Sariak
8. Kirolaren eta familiaren arteko kontziliazioa
9. Instalazioak
10. Genero-indarkeriazko egoerei aurre egiteko plana
11. Ekintza positiboa

ONDORIOAK

I. ZATIA

1- Sarrera

Estatuko Kirolaren Legeak I. kapituluko 4. artikuluan dioenaren arabera (39/2022 Legea, abenduaren 30ekoa), Espainiako kirol-federazioen betebeharra da bi sexuen arteko berdintasunezko tratua bermatzea kirol-ekitaldi eta kirol-lehiaketetan.

Berdintasuna funtsezko balio bat da gizartean, eta ideia hori kirolera ere ekartzen da. Hori horrela, gizonen eta emakumeen presentzia orekatua zaindu behar da maila guztietan: parte-hartzean, antolaketa, zuzendaritzan eta kudeaketan.

Halaber, espezialitate bereko kirolari eta kirol-talde guztien berdintasuna bermatu behar da, emakume zein gizonak izan. Berdintasuna arlo guztietan nabarmendu behar da: baldintza ekonomikoetan, lan-baldintzetan, formazio fisikoan, mediku-zerbitzuetan, ordainsarietan eta garaikur edo sarietan ere.

Horretarako, pertsona guztien benetako berdintasuna bermatu eta babestu behar dugu kirol-jardueran, baita ere kirolarien garapen egokia entrenamenduetan, izen-emateetan edo parte-hartzean. Guztien gogobetetzea bermatu behar da.

Egungo egoera sexuen arteko desberdintasuna eta ekitate-falta denez, berdintasun hori eragozten duten oztopoak ezabatzeko neurri zuzentzaileak hartuko dira.

Halaber, emakume kirolarien eta ekitaldien antolatzaileen arteko harremanetan sortzen diren diskriminazio-egoerak ezabatu behar dira: lan-harremanetan sortzen direnak baina baita kirol-harremanetan, harreman administratiboetan eta gainerakoetan sortzen direnak ere.

Hori horrela, Federazioaren eginkizuna estatu mailan kirol federatuaren defentsa eta sustapen orokorra denez, eta, kirolaren legeriaren zein bere estatutuen arabera, zaintza-lana egitea dagokionez, egokitzen jo da entitateek tresna gisa erabil dezaketen gida hau argitaratzea. Hori horrela, lehiaketak edo kirol-probak antolatzen dituzten entitate eta klub guztiei dei egiten zaie, langintza horretan hemengo baliabideak erabil ditzaten.

2- Helburu nagusiak

- I. Emakumeek kirolean duten papera etengabe hazten lagundu nahi du FEDMEk, berdintasuna honezkero gizarte osoan hedaturik dagoen fenomenoak baita.
- II. Berdintasuna lortzea, federazioari dagozkion arlo guztietan: aukeretan eta emaitzetan.
- III. Diskriminazio oro desagerraraztea, federazioak babestutako lehiaketak prestatzean eta gauzatzean
- IV. Emakumeen presentzia indartzea, federazioari dagozkion kirol-espezialitate guztietan.
- V. Indar soziala sortzea, mendiko kirolak gizartearen eraldatzaileak izan daitezen.
- VI. Gizartea kontzientziaztea, berdintasunak kirolari eta gizarteari dakartzkion hobekuntzez ohartzeko.
- VII. Kirol-arloko eskubideak babestea, sexuagatik eta generoagatik bereizkeriarik sor ez daitezen eta proba orotan berma daitezen.
- VIII. Teknikakzio-taldeetan emakume heldu, haur eta gazteen parte-hartzea sustatzea, gizonezko kirolarien oinarri beretik abiatzeko eta emaitzetan ere berdintasuna ahalbidetzeko.

3- Gida, ekintza positiboa eta lanerako tresna gisa

Gida honek ez du arau-indarrik. Aitzitik, proposamenak egiten dituen dokumentu bat da soilik. Proposamen horiek lehiaketetan kontuan hartu beharko lirateke, parte-hartzaileen aukera-berdintasuna ziurtatzeko, baita kirol-arloan ere.

Klub, entitate, kirolari, teknikari eta arbitraje-taldeen eskura jartzen dugun tresna bat da, baliagarria izango baita araudian agertzen diren lehiaketak antolatzeko orduan.

Gida ekintza positibo bat da, eta genero-ikuspegia izango duten ekintza positibo gehiagoren sorta bat sortzea ahalbidetzen du, FEDMEren proba bat antolatzeko orduan emakumeen parte-hartzea indartzea ekarri beharko luketenak.

Berdintasunak zeharlerro izan behar du lehiaketa edo proba bat antolatzeko prozesu osoan zehar: izen-ematetik sari-banaketara arte; deialditik hasi eta informazioa eta emaitzak jasotzeko eta emateko ordura arte.

4- Kirol espezialitateak

Gida hau, batez ere, Mendi eta Eskalada Kirolen Espainiako Federazioari (FEDME) atxikitako lehiaketako kirol-espezialitateetara zuzenduta dago

Kirol-espezialitate horiek haien araudien arabera arautzen dira. Urtero berrikusten dira eta batzorde batek onartzen ditu (*Comisión Delegada*). Batzorde horretan zehatz-mehatz jasotzen da FEDMEk antolatzen duen lehiaketa bakoitza nola gauzatuko den. Honako espezialitate hauek jasotzen dira:

- Eskalada. Aldaera eta/edo konbinazio guztiak antolatzen dira (harkaitz-eskalada, izotz-eskalada, kirol-eskalada, indoor, urbanoa, dry tooling, psikobloc, etab.)
- Paraeskalada. Honetan ere aldaera eta/edo konbinazio guztiak sartzen dira (harkaitz-eskalada, izotz-eskalada, kirol-eskalada, indoor, urbanoa, dry tooling, psikobloc, etab.)
- Mendiko eskia
- Arroila-jaitsiera
- Mendiko lasterketak
- Martxa nordikoa

Federazioaren kirol-lehiaketek errespetua bilatzen dute arlo guztietan: kirolarientzat, antolatzailleentzat eta ikusleentzat, baita ingurumenarekiko eta segurtasunarekiko errespetua ere. Horregatik da hain beharrezkoa berdintasunaren arloko jardunbide egokien gida hau: errespetu eta babes hori oso-osorik arlo guztietara eramateko.

5- Genero-ikuspegia

Kirol-ekitaldietan badira hainbat alderdi, berdintasunari eragin eta berdintasun-printzipioa urratzen duenak. Gaur egungo gizarte-sentsibiltateak alderdi horiek kontzientziara ekartzen ditu. Honako hauek, adibidez:

1. Zeharlerro moduan proba osoan hedatu beharko litzatekeen genero-ikuspeirik ez egotea.
2. Hizkuntza eskusiboa eta sexista erabiltzea.
3. Sari, prima eta opariak ezberdinak eta diskriminatzaileak izatea, sexuaren arabera.
4. Emakumezkoen sailkapenak zorrotasunik gabe ematea.
5. Kirol-taldeetan sexu biak ez integratzea.
6. Emakumeen kirolaren eta emakume kirolarien lorpenak aintzakotzat ez hartzea edota beren gaitasunagatik, lorpenengatik, errekorrengatik edo emaitzagatik mereziko luketen ikusgarritasunik ez ematea.
7. Emakumearen gorputza kosifikatzea.
8. Berdintasunean parte hartzea eragozten duen zirkunstantziak egotea: aukera-berdintasunik eza edota oztopoak.
9. Ratio ezberdinak probak antolatzeko eta probetan parte hartzeko garaian.
10. Emakumeen jantzietan neurri egokirik ez egotea edota emakumeentzako jantzi egokirik ez izatea.
11. Hedabideetan kirol arloko informazioa modu diskriminatzailearen ematea.

6- Nori zuzendua?

Kirol-probak antolatzen dituzten entitate hauek dira gidaren xede:

- Lurralde mailako federazioak.
- FEDMEari atxikitako mendi-klubak
- Proba antolatzeko kontratatzen diren entitate kontratatutak eta babesleak.

- Mendiko edo eskaladako kirol-probarik antolatu nahi duten kirol-elkarteak, proba lehiakorra zein herrikoia izan, egutegi ofizian baten barruan egon zein ez.

7- Helburu espezifikoak

1. Genero-berdintasunari dagokionez FEDMEko lehiaketek estandar batzuk eta kalitate jakin bat bete ditzaten sustatzea.
 2. Kirol-eremu horietan gizonen eta emakumeen arteko tratu-berdintasuna sustatzea.
 3. Lehiaketan emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatzea.
 4. Hautaketa-irizpideak berrikustea, talde paritarioak lortzeko.
 5. Berdintasuna lortzeko jarduna emaitzetan fokalizatzea. Kontua ez da soilik berdintasunerantz jotzea, baizik eta bermatzea. Berdintasuna indartzeko eta sustatzeko ekintzak behar dira horretarako.
 6. Modu agerian zein ezkutuan, genero edo sexuagatik diskriminazioak izatea ekiditea.
 7. Kirolaren, kulturaren eta gizartearen arlo guztietan berdintasun erreala eta eraginkorra lortzeko beharrezkoak diren politikak eta ekintza positiboak ezartzea; bai legeriak eta bai gizarteak horrela eskatzen baitute gaur egun.
 8. Gida bat eta jarraibide zehatz batzuk ematea mendiko eta eskaladako probak antolatzen dituzten pertsonentzat.
 9. Berdintasunari dagokionez, FEDMEaren baitan antolatzen diren lehiaketak gizarte osoarentzat eredugarriak izatea.
-

II. ZATIA

KIROL-LEHIAKETETAN BERDINTASUNA LORTZEKO JARDUNBIDE EGOKIEN GIDA.

1- Genero aldetik inklusiboa eta ez-sexista den hizkuntza erabiltzea.

Idatziz, ahoz eta irudiz hizkuntza inklusiboa eta ez-sexista erabiltzea:

1. Probaren deialdian.
2. Deialdiaren karteletan.
3. Ibilbide osoan ager daitezkeen marka eta argibideetan.
4. Sari-banaketan.
5. Megafonian: bozgorailu, mikrofono edota esatarien bidez.
6. Publizitate komertzialean: pankartak, banderolak eta bestelakoak

2- Irudiak eta ikus-entzunezkoak

1. Parekidetasun-printzipioa errespetatzea eta emakumeen zein gizonen irudiak proba zabaltzeko erabiltzen diren euskarri guztietan agertzea: kartelak, ikus-entzunezkoak, sare sozialak eta abar.
2. Probaren kirol-izaera errespetatzea. Horren arabera, irudietan eta karteletan emakumeak eta gizonak beren kirol-jardueran ageriko dira edo, hala ez bada, pertsonaren duintasuna sustatzen duten irudiak izan beharko dira.
3. Emakume kirolariaren kosifikazio sexuala saihestuko da. Baita haren irudiari, gorputzari edo gorputz atal jakinei buruzko estereotipoak ere
4. Saihestu egingo da, halaber, emakume kirolariaren irudia erabiltzea, kirolarekin zerikusia ez duten bestelako helburuetarako.
5. Irudi-eskubideak errespetatuko dira, sinatu diren moduan.
6. Duintasunaren eta ez-kosifikatzearen irizpide berberak jarraituko dira proban parte hartzen duten gainerako pertsonekin, kirolariak ez badira

ere: emakume langileak, antolatzaileak, boluntarioak, laguntzaileak, esatariak, sariak banatzen dituztenak eta abar.

3- Hedabideak

Antolatzaileek kirol-ekitaldiaren ondoren hedabideetara irudirik edota iruzkinik bidaltzen badute, edota kronikarik sortzen badute, honako baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Emakumeak pertsona eta kirolari gisa duen irudia errespetatzea, bere kirol-alderdia balioetsiz, kirolekoak ez diren beste alderdi batzuetan sartu gabe, hala nola bere bizitza pribatuan.
2. Kosifikazioa saihestea eta ekitaldian zehar hartu diren irudiak ez erabiltzea, baldin eta kirol-arloarekin zerikusia ez duten edukiak sortzeko erabili badaitezke.
3. Baimenik gabe hartu diren irudiak edota iraingarriak izan daitezkeenak saihestea.
4. Hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiltzea.
5. Emakumeen parte-hartzea berdintasunez zabaltzea lehiaketaren aurretik, bitartean eta ondoren.

4- Emaizak eta sailkapenak

Emaizak eta sailkapenen tratamendua:

1. Berdintasunezkoa eta zorrotza izan behar du.
2. Erabateko parekidetasuna zaintzea, publikoarekin edota hedabideekin komunikatzeko orduan. Hori horrela, ez dago zertan gizona sailkapena beti lehenik eman
3. Emakume eta gizon kirolarien emaitzak berdina-berdina dira garrantzitsuak eta horrela ageri behar dira. Edonola ere kirolari jakin baten merezimendua nabarmendu daiteke, pertsona hori gizona zein emakumea izan.

5- Ratioak

1. Kirol-ekitaldiaren antolaketan 40/60 ratio parekideak sustatzea. Honako hauetan, alegia: arbitrajea, epaileak, antolakuntzako eta zuzendaritzako langileak, lasterketa-batzordeak, epaimahaiak, proba-zuzendariak edota epaimahaien aholkularitza-taldea (halakorik balego).
2. Izan ere, 40/60 ratioa parte-hartzaile ez diren antolatzaile guztiei aplikatu beharko litzaieke, boluntarioak zein kontratatutak izan, baita mediku eta fisioterapeuta zerbitzuetakoei ere, ahal den guztietan, arlo horretan ari diren emakumeak, justifikaziorik gabe, gutxiegi ordezkaturata badaude.

6- Kirol-materiala, arropa teknikoa eta bestelakoak

Antolatzaileek ematen dituzten kirol-materialari eta arropari dagokionez:

1. Emakumeen tailajeari eta fisionomia desberdinari egokitua izan behar du.
2. Erosoa izan behar du, ez umiliagarria. Ez du kosifikatzen lagundu behar. Koloreagatik, tailagatik edo diseinuagatik deserosoa izatea saihestu behar da. Hilekorako ere egokia izan behar du.
3. Hornidura-puntuetan eta horretarako egokia diren lekuetan konpresak eta tanpoiak egon behar dira emakumeentzat.

7- Sariak

1. Sari berdinak izango dira sexu bientzat, ekonomikoak, objektuetan, produktuetan, primetan edo beste edozein modutan badira ere. Ez da onargarria sari "arrosak" eta "urdinak" izatea.

2. Emakumeen errekorrak balioetsi behar dira. Marka edo denbora bat hausteagatik sari ekonomikorik badago, berdina izango da bi sexuentzat.

8- Kirola eta familiaren arteko kontziliazioa

Bitartekoak jarri behar dira haur txikiak dituzten emakumeek ere lehiaketetan parte hartzeko aukera izan dezaten. Amatasuna ez da lehiaketan parte hartzeko oztopo izango. Halaber, gizonezko kirolarien erantzunkidetasuna sustatu behar da.

1. Antolatzaileak haurtzaindegi-zerbitzua eskaintzen saiatuko dira. Helburua da guraso biek erabiltzeko zerbitzua izatea, eta ez soilik amek.
2. Emakume bat lehiaketa batean inskribatu eta ondoren haurdun geratzen bada, inskripzioaren zenbatekoa itzultzeko edo inskripzioa bi urtez atzeratzeko aukera izango du.

9- Instalazioak

1. Emakumeentzako aldagelak eta komunak prestatuko dira, eta nahikoak izango dira proban parte hartuko duten emakumeen kopururako.
2. Haurren arropa aldatzeko lekuak erraztuko dira, guraso biek erabiltzeko modukoak
3. Proba-lekuaren argiztapena, sarbidea eta harako garraioak egokiak eta seguruak izango dira.

10- Genero-indarkeriazko egoerei aurre egiteko plana

1. Egoera horiei aurre egiteko jarduera-protokolo bat egon behar da.
2. Puntu Bioleta bat edo Berdintasun-arbitraje bat egongo da, denok ikusteko moduan. Komeni da probaren oinarrietan iragarrita egotea. Bertara jo ahal izango da, hartu behar diren neurriak hartzeko edo

dagozkion segurtasun-indarrekin harremanetan jartzeko.

3. Diziplina-erregelamenduetan jokabide sexistak jasoko dira, baita sexu-arrazoiengatik pertsona batek normaltasunez parte hartzea oztopatzen dutenak ere, berdin dio jokabide hori lehiakide batengandik edo antolatzaile batengandik datorren, jokabide horiek kirol-legeen kontrakoak baitira.

11- Ekintza positiboa

1. Entitate bakoitzak bere esku du berdintasunaren eta bereziki ekitatearen integrazioa hobetzea, irtenbide berritzaileak eta originalak bilatuz eta mendiko kirolen eta eskaladaren komunitatera ekarriz. Berdintasuna lortzea helburu duten neurriak izango dira, hala nola ekintza positiboak eta ekitatezkoak, eta betiere onargarriak izango dira.
2. Antolatzaileek beren buruari galdetu behar diote lehiaketa bakoitzak berdintasuna eta ekitatea zein neurritan laguntzen dituen.
3. Erregelamenduetan eta bestelako araudietan berdintasunarekiko errespetuaren ideia sartu behar da beti, eta ideia hori garatu behar da: neurri jakinak hartuz edo desberdintasunik ez dagoela onartuz. Alderdi hau ere FEDMEko ordezkariak edo antolatzaileak ikuskatu behar dute, ingurumen-protokoloekin egiten den bezala.

Ondorioak:

Gida hau praktikan jartzea lagungarria izango da:

1. FEDMEko lehiaketetan parte hartzen duten emakume kirolarien bizikaltatea hobetzeko, inoren kalterik gabe.
2. Emakume kirolarien ibilbideari eta lanari balioa eta aitortza emateko.
3. Gizarte osoa hobetzeko, FEDMEko kirol-lehiaketak gizartearen eraldatzeko tresna garrantzitsuak baitira, gizartearen eta hedabideetan duten eraginagatik.